

AIXERROTA ZER GARA GU, NOR GARA GU

Ikastetxean kide guztiok BAT gara.
Norberak **zuzen, arduratsu eta jator**
jokatzen duenean, taldeari ez ezik
bere buruari ere mesede egiten dio.

Jokatuko dugu


errespetuz

Libre,
kritiko

zintzo

elkartasunez


lankidetzan



Taldean bizi gara laguntza eman eta jasotzeko.


Gehien behar duenari hari lagunduko diogu gehien.

Ez gara inoren ahuleziaz baliatuko bera zapaltzeko.




Baloreak ekintzetan transmititzen dira,
hitzak haizeak daramatza:

Koherentziaz jokatuko dugu




**Ikastetxeko kide guztien arteko
errespetua da gure bizikidetzaren
oinarri.**

Ez dugu onartuko inor mehatxatu, iraindu
edo barregarri uzterik.






**Bidegabekeria eta gehiegikerien
aurrean tinko agertuko gara.**

Geure aurka datozenean TINKO;
baina guk geuk egindakoarekin KRITIKO
hausnartzeko eta ZUZENTZEKO PREST




Aniztasuna, gure aberastasuna;

**diferentzia ez da inor alboratu edo
gutxiesteko arrazoi izango**




Denon ardura da ikastetxea, bere kideak eta arautegia zaintzea.

Inon beharrizanik antzematen badugu, berehala inplikatuko gara.




Harreman adeitsuak nahi ditugu: elkarri zuzentzean, agurtzean, gelara sartzean, karrajuetan...

Erraza da eta giro atseginagoa lortzen lagunduko digu






Ikaste prozesua osatu eta aberasten laguntzen digulako,

ikastetxeak antolatzen dituen ekintzetan **jarrera PARTEHARTZAILEA** izango dugu.




Gure jardunaren arrakastarako
ezinbestekoa delako,

PUNTUALITATEA zorrotz zainduko
dugu







**Arazoen aurrean ikuspegi hezitzailea
hobetsiko dugu:**

elkarrizketa, hausnarketa, egindako
kaltearen onarpena eta konpentsazioa.



Euskara da gure komunikazio hizkuntza.

Gure hautua da: “Euskaraz bizi nahi dugu!”
eta horretara goaz



**Gure Herriaren izaera eta kultura
lehenetsiko ditugu**


beste kultura batzuk ezagutzeko jarrera
irekia agertuz

Giroa hobetu eta lanari etekin handiagoa ateratzeko

ikastetxeko ekipamendu eta materialak behar bezala zainduko ditugu.

Norberarena, gainerakoena eta, jakina, guztiona dena ere bai.

Egunean hainbeste ordu ikastetxean ematen ditugula aintzat hartuz, denon onurarako,
gure burua, ingurua, ikasgela eta, oro har, ikastetxea, txukun mantentzeko ardura hartzen dugu.



Ingurumenaren zaintzan jarrera aktiboa agertuko dugu:

Kontsumoa neurrian , berrerabili eta birziklatu.

Horra gure praktika.